

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Dani Maeztu Perez Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Planari buruz” ondoko LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, PRESAZKO PROZEDURAZ eztabaidatua izan dadin osoko bilkuran:

ZIOA

147/2002 dekretuaren bidez, Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartu zen. Planak industri eta erauzte jarduerak arautzeko orduan, bere 5.2.7 atalean jasotzen du, Zalloventa harrobiaren ustiaketa egiteko aukera parke naturalak dituen mugen barruan; beti ere, harrobiaren ustiapena ahalbidetzeko gehiengo mugen definizioa Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzentzailearen esku geratzen delarik.

Era berean, Atxarteko harrobien inguruan honako hau jasotzen du aipatutako Planak: “Gaur egun itxita dauden harrobiak ingurumen arloan berreskuratzeko beharrezko lanetan (edo ustiapenak), eta bereziki Atxa-txikiko eta Atxarteko harrobiek, ingurumen-mailan berreskuratzera zuzendutako ustiapen-prozesua jarraituko dute”.

Hainbat aldiz adierazi du Eusko Legebiltzarrak Urkiolako Parke Naturalaren barruan egiten den ustiapen-jardueraren aurkako jarrera. Azkeneko aldiz 2009ko irailaren 23an egindako osoko bilkuran eman zen aurkako iritzia.

Kontutan izanik 6/1994 Euskal Herriko natura babesteko legearen arabera Eusko Jaurlaritzari dagokiola Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren aldaketa martxan jartzea, Aralar legebiltzar-taldeak hurrengo Legez Besteke Proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko jaurlaritzari eskatzen dio:

- 1- Berehala ekin diezaiola Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailak Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) aldatzeko prozedurari.
- 2- Aldaketa horrek hurrengo puntuak jasoko ditu, sailak aurreikusten dituen beste aldaketez gain: NBAP-ren 5.2.7 atalean Zalloventa harrobiaren ustiapenaren mugak Parke Naturaletik kanpo utziko dira; bestalde, Atxarteko harrobietarako beharrezkoak

diren berreskurapen lanak burutuko direla jasoko da, beti ere ustiapen lanen inguruan gaur egun egiten den aipamena ezabatuz.

PRESAZKO PROZEDURAREN AZALPENA

2009ko urtarrilaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, honako hau argitaratu zen: “Canteras y Hormigones Zalloventa SA enpresak Mañariko udalerrian sustatzen duen EKAPn finkatutako Urkiolako parkearen mugan Zalloventa harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duela”.

Horrela, ustiapen proiektu berri bat martxan jartzeko baimenak eskuratzeko prozesua abiatu da. Kontutan izanik prozedura hori martxan dagoela eta, onartuz gero, Parke Naturalaren barruan harrobi ustiapena ahalbideratuko litzatekeela, uste dugu ekimen horrek presazko prozedura jarraitu behar duela.

Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 13an

Dani Maeztu Perez

Aralar Legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea